

Errealitate areagotuko horma-irudi batek ekarriko du berriro tren txikia Maeztuko kaleetara

Irantzu Lekuek egin du artelana, Tecnaliarekin batera. Arabako Foru Aldundiak Arraia-Maeztuko Udalak eta Vital Fundazioak finantzatu dute artelana, eta Eusko Jaurlaritzaren KSI Berritzaile programak lagundu

FLASHBACK: EL TRENICO izeneko app baten bidez, bagoiak ikusi ahal izango dira antzinako ibilbidea (gaur egungo bide berdea) korritzen

Gazteiz, 2021eko otsailaren 19a. Vasco-Navarroko bide berdeko Elortza – Zekuiano tuneleko Irantzu Lekue artistaren azken esku-hartzearen ostean, zeinak hainbat eta hainbat bisita jaso dituen, Flashback: El Trenico inauguratzen da. Flashback: El Trenico Irantzu Lekuek (Vitoria-Gasteiz, 1987) Arraia – Maeztun (Araba) azken urte eta erdian egindako proiektua da. Proiektua elkarlanean egin dute artistak eta TECNALIA ikerketa eta garapen teknologikoko zentroak, Eusko Jaurlaritzaren KSI Berritzaile programaren baitan, eta diruz lagundu dute Arabako Foru Aldundiak, Arraia - Maeztuko Udalak eta Vital Fundazioak.

Irantzuk horma-irudigintza eta errealitate areagotua uztartzen ditu oraingo lanean. Hala, bada, Flashback: El Trenico mugikorreko APParen bidez ikusleek, ikusteaz gain, entzun eta sentitu egingo dute irudiaz haraindi, gure eskualdeko memoria bizian murgiltzeraino.

Artelan honek *Tren txikiaren* oroitzapenak biziberritzen ditu, *El Ferrocarril Vasco-Navarro*, 1889tik 1967ra Bergara (Gipuzkoa) eta Lizarra (Nafarroa) lotu zituen trenbidea. Proiektuak Arabako Maeztu herria izan du kokagune eta indargune parte-hartzaile nagusia, eta han gauzatu du Lekuek oroitze-prozesua, bizilagunekin batera margotutako horma-irudiaren bidez eta argazki- eta grabazio-bilduma batez, zeinetan islatzen diren garai hartako jendea, haren bizipenak eta geltokiko kontakizunak.

Lanak garaiko objektuak (maletak, txilibituak, ticket zaharrak...), soinuak eta kontakizunak biltzen ditu, eta elementu horiek kultura material eta immateriala dakarkigu, Arraia-Maeztuko bizilagunen laguntzari eta parte-hartzeari esker berreskuratua. Ildo berean, horma-irudia leiho modukoa dugu eta errealitate areagotuari esker gainditu ahal dugu paretako irudia, Flashback: El Trenico baliaturik. Aplikazioa TECNALIA ikerketa eta garapen teknologikoko zentroak diseinatu du, eta Google Play-n dago deskargagarri. Erabiltzaileak telefono mugikorraren bidez eskuratu ditzake kontakizunak, 3Dko objektuak, artxiboko irudiak eta tren txikia bera ikusi, berriro martxan burdinbide zaharrea, egungo bide berde bilakaturik.

Proiektuak ikusmen artifizialeko teknologia, sistema inertzialak eta SLAM (Simultaneous Location And Mapping) teknologiaren azken garapenak erabiltzen ditu. Horiek guztiek askatasun 6 gradutako elkarreragina ematen diete erabiltzaileei, gailu mugikor batez

lotura sendoak egiteko ingurune errealeko elementuen eta horma-irudiak eta bere ingurune birtualak eskaintzen dituen elementu birtualen artean.

Artelana Euskal Herriko lehen horma-irudi areagotua da, Arabako Mendialdeko Maeztuko Vasco-Navarroaren antzinako tren geltokia dago eta gaur inauguratzen da udaberriari begira bizilagunen, bisitarien eta zikloturisten gozagarri. Bestalde, Tren Txikia Iruñeko Baluartean aurkezteko aukeratu zuten, 948 Arte-merkatuaren baitan, berrikuntza-proiektuen atalean, eta 10 proiektu berritzaileen artean sailkatu zuten aurkeztutako 600 proiektuetatik.

Anartz Gorrotxategi Arraia-Maeztuko alkateak ezinbesteko deritzo Tren txikiak bildu zituen ondarea, lekukotzak eta historia ezagutzeari, ulertzeari eta zabaltzeari, funtsezko erreminta baita herri eta gizarte jasangarriagoak dimentsio guztietan osatze aldera: dimentsio kulturalen, ekonomikoan eta ingurugirokoan.

Inauguraziora Josean Galera Ingurumen eta Hirigintzako diputatua ere joan da, eta nabarmendu du Vasco-Navarroren garrantzia herrialdearen iraganean eta etorkizunean. Tren txikiak ekarri zituen aukerek eta mugikortasunak bide eman diote Arabako bide berde garrantzitsuenetako bati, mugikortasun jasangarriaren aldeko apustu garbiari. Izan ere, Vasco-Navarroko bide berdeak 220.000 txirringulari eta ibiltari ekartzen ditu, Izkiko parke naturalak eta arabar landa-eremuaren ondareak erakarririk.